

# Valverderen hamabi amodio istorioak

'Hamabi amodio kanta' Charles Bordesek XIX. mendean egindako bilduma arramoldatu du Valverdek

XAN AIRE  
Baiona

Antton Valverdek beti piano baten aurrean kantatzen omen du. Ez oraingoan. Maitemindu baita. Gizon batez. Ez. Gizon baten lanaz. Charles Bordes musikazale frantziarrak Ipar Euskal Herriko hamabi kantu bildu eta landu zituen XIX. mendean. Bilduma ezagutu, eta Karlos Gimenezen esku utzi zuen Valverdek. Proiektu luze bat burutu da: *Hamabi amodio kanta-Douze Chansons Amoureuses du Pays Basque Français* diskoa (Elkar) kalean da.

«Bordesen lana duela 35 urte ezagutu nuen. Kopia bat eskura eman zidaten, baina bilduma berriz hartzeko proiektua beti atzeratu egin zen. Ez naiz Speedy Gonzalez», adierazi du, ironia tanta batekin, Valverdek. «Bordesen lana interesgarria iruditu zitzaidan; gorputza zuen, eta sendoa, biribila, bukatua zen».

Charles Bordes Frantziako Vouvray izeneko hirian sortu zen, 1863. urtean. Gazte-gaztetatik musikari eskaini zizkion gogoia, bihotza eta denbora. Euskal Herriarekiko harremana 1885eko udaberrian Parisen izandako konferentzia baten esparruan entzun ahal izan zuen euskal kantu batetik dator. Bertan *Chorinoak kaiolan* abestiaren melodia zoragarria iruditurik, kantuaren sorlekua ezagutu behar zuela erabaki zuen. 1889. eta 1890. urteetan, Frantziako Instrukzio Publikoaren ministroak eskaturik, Euskal Tradizioen Biltegia deitu proiektua eraiki zuen, euskal dantza, kantu, doinu herrikoiak ezagutzeko eta artxibatzeko.

1910ean, Charles Bordes hil eta urtebetera, Pariseko argitaletxe batek *Douze Chansons Amoureuses du Pays Basque Français* kantu bilduma argitaratu zuen. Hautaketa honetatik gehienak Bordesek berak dagoeneko aurkeztu izan zituen Donibane Lohizunen, 1897an. Pianoaren laguntzaz, euskal kantutegiko doinurik lirikoenak eta iradokorrenak bildu eta eman zituen Bordesek. Horien artean, gaztaroan hainbeste liluratu zuen *Chorinoak kaiolan* izenokoa.

1972. urtean, Bordesen doinuak ezagutu zituen Antton Valverdek.



Antton Valverde, *Hamabi amodio kanta* diskoaren aurkezpenean, atzo, Baionan. BOB EDIME

«Bordesen lana duela 35 urte ezaguturik, beti atzeratu da proiektua. Ez naiz Speedy Gonzalez»

«Bordesen bilduma interesgarria iruditu zitzaidan; gorputza zuen, eta sendoa, biribila, bukatua zen»

ANTTON VALVERDE  
ABESLARIA

«Hainbat urtez bueltaka eta bueltaka ibili naiz bilduma honekin... Bi edo hiru kantu ere ez zitzaizkidan errazak iruditzen». Eta duela bi urte, disko horren proiektua gauzatzeko unea zela ikusirik, Karlos Gimenezen esku utzi zituen hamabi amodio kantak.

Doinuen moldatzeko, Gimenezen poesia osoa behar. «Partitura jaso, eta doinuak biluzi ditut», azaldu du Gimenezek. «Ni ziur nago burutik bihotzera bide bat dagoela. Horretan bidaia dut nik lan hau egiteko. Melodiak filtratu ditut, saiatu naiz barruan daukaten gaztetasuna jalgiaztzen».

PIANO GUTI, HARI GEHIAGO. Dena den, oinarriko melodiak errespetatuz joan dela adierazi du Gimenezek, doinuarekin geratuz. «Pianoan grabatuak zituen Bordesek kantuak. Nik piano guti jarri dut disko honetan. Harizko orkestra batekin hobeki iruditzen zitzaizkidan». Hamabi kantuen gaztetasuna berreskuratu nahiz edo... «Anttonen ahotsa oraindik gaztea da».

Gaztetasunaren eztabaida ez zaio garrantzitsua Valverderi. «Beharbada, estiloa ez da gaurko egoia. Baina polita dela iruditzen zait niri». Angel Valdes Elkar argitaletxeko ordezkariak «produktu iraunkorrek» beharrezkoak direla nabarmendu du. «Hain azkar hiltzen dira obrak gaur egun...». Valverderen diskoaren lan bikoitza aipatu du Valdesek. «Gure oroimenezko dokumentaziorako baliagarria da. Bestalde, erakargarria ere bada. Amodioaren gai unibertsalarekin, doinurik ederrenak doaz, Valverderen ahots karismatikorekin».

Maitasuna eta halako gaiak beharrezkoak dira, Valdesen ustez, iraunkorrek direlako. «Edozein unetan. Duela hamar urte, orain, ala ez dakit zenbait urteren buruan. Orainxe ikusi dugu lan honen argitaratzeko aukera». Emanaldiak ere egin nahi lituzkete. Baina egunik ez dute oraindik finkatu. «Antolatzaile bat interesatua baldin bada...».